

2014ko Kontratazio Memoria

KONTUHARTZAIETZA ETA AUDITORETZA
2015ko AZAROA



AURKIBIDEA

ORRIA

| | |
|--|----|
| 1.- SARRERA | 3 |
| 2.- KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOARI BURUZKO ARAUDIA | 4 |
| 3.- KONTRATUEN ERREGISTRO ESPARRUA | 7 |
| 4.- 2014KO EKITALDIKO KONTRATUEN AZTERKETA | 8 |
| 4.1.- GASTUA KUDEATZEKO KONTRATUAK, 2014AN ONARTUAK..... | 10 |
| 4.1.1.- TIPOLOGIAREN ARABERA..... | 10 |
| 4.1.2.- TRAMITATZEN DUEN DEPARTAMENTUAREN ARABERA | 10 |
| 4.1.3.- PROZEDURAREN ARABERA | 18 |
| 4.1.4.- ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOAREN ARABERA..... | 21 |
| 4.1.5.- ESLEITU GABE UTZITAKO LIZITAZIOAK | 22 |
| 4.2.- GASTUA KUDEATZEKO KONTRATUAK, 2014AN GAUZATUAK..... | 22 |
| 4.2.1.- TIPOLOGIAREN ARABERA..... | 23 |
| 4.2.2.- TRAMITATZEN DUEN DEPARTAMENTUAREN ARABERA | 23 |
| 4.2.3.- ESLEIPENETAN IZANDAKO KONTRATAZIO BEHERAPENEN AZTERKETA..... | 24 |
| 4.1.5.- ESLEITZEKO IRIZPIDEEN AZTERKETA | 25 |
| 4.2.5.- ESKAINTZARIK MERKEENAREN ALDEKO ESLEIPENAK..... | 43 |
| 4.3.- 2014KO EKITALDIAN ONARTUTAKO ESPARRU-AKORDIOAK | 43 |
| 4.4.- GASTUAREN KUDEAKETARI LOTU GABEKO ONDARE KONTRATUAK | 44 |
| 4.4.1.- ONDARE KONTRATUAK..... | 44 |
| 4.4.2.- BASO APROBETXAMENDUAK..... | 45 |

ERANSKINAK

| | | |
|--------------------|--|----|
| I. ERANSKINA..... | 2014an onartutako kontratuak, kontratu motaren arabera | 46 |
| II. ERANSKINA..... | 2014an onartutako kontratuak, esleitzeko prozeduraren arabera | 47 |
| III. ERANSKINA | 2014an onartutako kontratuak, espedientearen tramitearen arabera | 48 |
| IV. ERANSKINA | 2014ko esleipenetan izandako beherapenen zerrenda, departamentuen arabera | 49 |
| V. ERANSKINA | 2014ko esleipenetan izandako beherapenen zerrenda, kontratu motaren arabera | 72 |



1.- SARRERA

Maiatzaren 22ko 25/2012 Foru Dekretuak, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duenak, Foru Aldundiak egiten dituen kontratuak erregistratzeko eginkizuna esleitzen dio Kontu-hartzailletza eta Auditoretza Zerbitzuari. Orobat, eskatzen zaizkion eta bere eskumenekoak diren azterketa eta txostenak egitea ere agintzen zaio zerbitzuari dekretu horretan.

Hori guztia betez, Memoria hau aurkezten da Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratazio administratiboaren alorrean egindako kudeaketaren ikuspegi integral bat eskaintzeko.

Memoria bi ataletan egituratuta dago:

1. Kontratazio alorrean Foru Aldundiari aplikagarri zaion araudiaren aipamen laburra.
2. Foru Aldundiko 2014ko kontratuen kudeaketari buruz Zerbitzu honetan dauden datuen azterketa. Ekitaldian lizitatu eta esleitutako kontratuen inguruko datu eta estatistikak ere jasotzen dira, eta konparazioak egiten dira 2013. urtearekiko.



2.- KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOARI BURUZKO ARAUDIA

◆ Kontratazio administratiboaren alorrean aplikagarria den legeria

2014ko ekitaldian honako legeria izan du aplikagarria Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratazio administratiboaren alorrean:

- 1) Aurrenik, Estatuko Oinarrizko Legeria (Konstituzioaren 149.1.18 artikulua). Oinarrizko legeria dira:
 - ⇒ 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.
 - ⇒ 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
 - ⇒ 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- 2) Aurreko legeriarekin batera, garapeneko legeria autonomikoa ere aplikatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 11. artikulua Estatuko oinarrizko legeria bere lurraldearen barruan garatu eta exekutatzeko eskumenak esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari, kontratazioari dagokionez.

Gaiari buruzko araudi autonomikoa, nagusiki, honako xedapenen bidez gauzatu da:

- ⇒ 136/1996 Dekretua, ekainaren 5koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio erregimenari buruzkoa.
 - ⇒ 12/1998 Dekretua, otsailaren 3koa, Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenaren ezarpenari buruzkoa.
 - ⇒ Agindua, 1998ko otsailaren 4koa, Ogasun eta Herri Administrazio Kontseilariarena, Kontratisten Erregistro ofizialaren funtzionamendu arauak ezartzekoa.
 - ⇒ Agindua, 1998ko otsailaren 4koa, Ogasun eta Herri Administrazio Kontseilariarena, Kontratazio Administratiboaren Aholku Batzordearen funtzionamendu arauak ezartzekoa.
- 3) Garapeneko legeria autonomikorik ezean, honako hauek dira aplikaziozkoak: Herri Administrazioen Kontratuen Legea (testu bategina), Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, 1098/2001 Errege Dekretua, 817/2009 Errege



Dekretua, eta kontratazioari dagokionez Estatuak ematen dituen eta oinarritzko legeria osatzen ez duten gainontzeko xedapenak.

- 4) Azkenik, ordezeko izaeraz, zuzenbide pribatua ere da aplikagarria.

◆ Kontratazio administratiboan aplikagarria den foru araudia

Lurralde historikoak ez du eskumenik kontratazio administratiboaren alorrean, salbu eta bere Administrazioako organoen eskumenei dagozkien, eta, beraz, Autonomia Estatutuak 37. artikuluan aitortuta duen auto-antolaketa eskumenaren barruan sartzen diren gaitan. Atal honetan xedapen hauek aipatu behar dira:

- ⇒ Martxoaren 26ko 3/2002 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, kontratazio eta erosketa zentralizatuko kredituei dagokionez hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa. Bertan jasotzen denez, kudeaketa zentralizatuko kredituetan, kontratuak tramitatzea eta obligazioak baimendu, konprometitu eta onartzea, proposamenak organo eskudunari helarazita kredituen zenbatekoaren arabera, kudeaketa zentralizatua agindua duten departamentuei dagokie, Diputatuen Kontseiluak ezartzen dituen prozedurei jarraituz.
- ⇒ 6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa.
- ⇒ 4/2013 Foru Araua, uztailaren 17koa, Foru Sektore Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzeko dena.
- ⇒ 11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoa.
- ⇒ Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen egitura organiko eta funtzionala onartzen dituzten foru dekretuak.
- ⇒ 24/2001 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratuen Erregistroa sortu eta kontratistak kreditatzeko prozedura arautzen duena.
- ⇒ 24/2010 Foru Dekretua, irailaren 28koa, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duena.
- ⇒ 3/2011 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentrala eta Zerbitzu Orokorren Kontratazio Mahaia arautzekoa.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2001eko apirilaren 24koa, kontratazio administratiboan alorrean Foru Aldundiko lan eta



zerbitzuetan edo berak sustatutakoetan segurtasun eta osasun gaietarako bete beharreko arauak onartzen dituen (GAO. 2001-05-29).

- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2001eko ekainaren 12koa, II. kapituluko hainbat partida kudeaketa zentralizatukotzat jotzen dituen.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2011ko ekainaren 21ekoa, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko klausulak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruko kontratuetan eta diru-laguntzetan sartzea onartzen duena.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2013ko martxoaren 13koa, kontratuen eta prestazio hitzarmenen alorrean Gipuzkoako Foru Aldundiak aplikatuko dituen neurrien jarraibidea onartzen duena abenduaren 27ko 12/2012 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2013rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, hamargarren xedapen gehigarrian jasotakoa betetzeko.



3.- KONTRATUEN ERREGISTRO ESPARRUA

Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten dituen administrazio kontratu guztiak Kontu-hartzailletza eta Auditoretza Zerbitzuak kudeatzen duen Erregistroan erregistratzen dira. Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legeriaren arabera kontratu txikitzat hartzen direnak.



4.- 2014KO EKITALDIKO KONTRATUEN AZTERKETA

Memoria honetan jasotzen diren kontratuak hautatzeko, irizpide hauei jarraitu zaie:

1. Barruan sartu dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginari lotuta 2014ko ekitaldian prozedura irekia edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz lizitatu diren administrazio-kontratu guztiak, (ekitaldi honetan tramitatutako prozedura bakarrak), bai eta kontratu pribatuak ere. Esparru-akordioetatik eratorritako kontratuak prozedura negoziatuen barruan sartu dira.
2. 2014. urtean onartutako kontratuen datuak kontratazio espedientea urte horretan baimendua duten prozesuei dagozkie.
3. Berrikuntza gisa, memoria honetan sartu dira ondare-kontratuak (akzio-eskurapenak) eta sarreren kudeaketarekin lotutako kontratuak, hala nola baso-ustiapenen lizitazioak eta GFAREN ondare-ondasunen doako eta kostu bidezko lagapenak. Aurreko ekitaldietan, atal honetan ondasun higiezin salerosketa kontratuak sartzen ziren soilik.
4. Esleipenei buruzko datuetan 2014. urtean egindako esleipenak sartu dira, kontratua ekitaldi horretan edo aurrekoetan onartu den kontuan hartu gabe.
5. Esleipen kopurua lotei buruzkoa da, ez kontratuei buruzkoa. Horren arrazoia da zenbait kontratutan xedea lotetan banatuta dagoela. Kontuan izanik lote bakoitzak esleipen eta exekuzio autonomoa izan dezakeela kontratuaren gainerako loteetatik, informazio agregatua prestatzeko ezinbestekoa da lote kontzeptuarekin lan egitea, eta ez kontratu kontzeptuarekin.
6. Aurreko ekitaldietan ez bezala, zeinetan kontratuak prozedura negoziatu bidez tramitatutakotzat jotzen baitziren zenbatekoak kontratazio prozedura horrekin tramitzeko gehieneko kopuru mugen barruan sartzen zirelako, ekitaldi honetan prozedura honen bitartez tramitatu diren kontratuak atal honen barruan sartu dira, zenbatekoa edozein dutela ere, departamentu kudeatzaileek emandako informazioa kontuan hartuta.
7. Bereizita eta zenbateko osoen arabera banatuta aurkezten dira, batetik, Zerbitzu Orokorretako Kontratazio Mahaiak kudeatutako esparru-akordioak (kudeaketa zentralizatuko gastuei buruzko kontratuak), eta, bestetik, Kontratazioen Zentralak kudeatutakoak. Zentralak tramitatutako esparru-akordioak Foru Aldundiak eta Gipuzkoako udalek formalizatu beharreko kontratazio espedienteak izan daitezke. Aurreko ekitaldietako memorietan, udalen zatiगतिक zenbatetsitako zenbatekoa esparru-akordioen zenbatekotik kanpo uzten zen. Era berean, aurreko ekitaldietan ez bezala berriz ere, zeinetan esparru-akordioen zenbateko osoa bakarrik jasotzen baitzen, baimendutako eta esleitutako kontratuen artean esparru-akordioetatik eratorritako kontratuak ere sartu dira memoria honetan.
8. Memorian jasotzen diren zenbateko guztiak, bai onartutako kontratuenak eta bai esleitutako lotei dagozkienak, BEZarekin datoz beti, eta kontratu



nagusiaren aurrekontuari dagozkio, egon litezkeen luzapenak aintzat hartu gabe. Kanpoan utzi dira, baita ere, prezio unitarioen arabera onartutako kontratuak, departamentuek zenbateko osoei buruzko informaziorik eman ez dutelako.

9. Aurreko ekitaldietan bezala, kontratu txikien prozeduraz baliatuta tramitatutako kontratuak ez dira sartu memoria honetan.

2014ko ekitaldian 188 kontratazio espediente onartu dira, 732.336.392,55 euro guztira. Ondorengo ataletan espediente horien banaketa aztertzen dugu hainbat irizpideren arabera.¹

¹ *Ikus laburpen taulak Memoriaren I. eranskinean. Bertan 2014an onartutako kontratuak ageri dira, departamentuen eta kontratu moten arabera sailkatuak*



4.1.- GASTUA KUDEATZEKO KONTRATUAK, 2014AN ONARTUAK

4.1.1.- TIPOLOGIAREN ARABERA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak arautzen dituen kontratu mota desberdinak kontuan hartuta, 2014an onartutako kontratuek banaketa hau ageri dute:

| KONTRATU MOTA | Kop. | % | Zenbatekoa | % |
|----------------------|------------|-------|-----------------------|---------------|
| Obrak | 35 | 18,62 | 14.218.462,69 | 1,94 |
| Hornidurak | 32 | 17,02 | 8.834.024,24 | 1,21 |
| Zerbitzuak | 107 | 56,91 | 73.313.909,49 | 10,01 |
| Zerbitzuen kudeaketa | 9 | 4,79 | 635.558.414,70 | 86,79 |
| Pribatuak | 2 | 1,06 | 195.500,00 | 0,03 |
| Ondare kontratuak | 3 | 1,60 | 216.081,43 | 0,03 |
| GUZTIRA | 188 | | 732.336.392,55 | 100,00 |

Kontratu kopuruari begiratuta, zerbitzuen kontratuak nagusitzen dira, alde handiz, besteen gainean, 2014an lizitatutako guztien %56,91 hartzen baitute. Ondoren, obra kontratuak datoz, kopuru osoaren %18,62ko portzentajearekin. Hirugarren tokian hornidura kontratuak ageri dira, haien portzentajea kopuru osoaren %17,02 baita.

Hiru kontratu motak batuta, Foru Aldundiak 2014an onartutako kontratu kopuru osoaren %92,65 hartzen dute. Gainerakoak honela banatzen dira: zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak (%4,79), ondare kontratuak (%1,60), eta pribatuak (%1,06).

Ikuspuntu ekonomikotik, zerbitzuak kudeatzeko kontratuak dira garrantzitsuenak (%86,79), eta haien barruan bidaiarien garraio zerbitzua zonaka egiteko bost emakidak. Azken horiek lurralde historikoaren zati handi bat hartzen dute, eta haien zenbatekoa 614.966.322,06 euro da (kontratu horien zenbateko osoa 635.558.414,70 euro denean). Haien atzetik, zerbitzu kontratuak datoz, %10,01eko portzentajearekin.

4.1.2.- TRAMITATZEN DUEN DEPARTAMENTUAREN ARABERA

Departamentuek onartu dituzten kontratuen kopuruari erreparatzen badiogu, agerian jartzen da Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua dela kontratu gehien tramitatzen dituen, kopuru osoaren %21,81. Ondoren, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua dator %17,55arekin. Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentua kenduta (%4,79), gainerakoak 5 eta 15 puntu portzentualen artean mugitzen dira.

Gastu baimenduari dagokionez, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua nabarmentzen da, haren gastu bolumenak 2014ko gastu osoaren




%91,85 hartzen baitu; gorago adierazi dugu bezala, bolumen horretan eragina izan dute, neurri handi batean, bidaiarien garraio zerbitzua zonaka egiteko bost emakidek, lurralde historikoaren zati handi bat hartzen dutenek. Atzetik, baina distantzia handiz, Gizarte Politikako Departamentua dago, %4,67ko portzentajearekin.

2014AN ONARTUTAKO KONTRATUEN BANAKETA, DEPARTAMENTUKA


| | Kop. | % | Zenbatekoa | % |
|--|------------|-------|-----------------------|---------------|
| Diputatu Nagusia | 11 | 5,85 | 1.592.963,65 | 0,22 |
| Ogasuna eta Finantzak | 11 | 5,85 | 1.355.980,50 | 0,19 |
| Gizarte Politika | 17 | 9,04 | 34.199.266,88 | 4,67 |
| Kultura, Gazteria eta Kirola | 33 | 17,55 | 6.115.819,56 | 0,84 |
| Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa | 9 | 4,79 | 1.226.279,03 | 0,17 |
| Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa | 17 | 9,04 | 1.763.303,10 | 0,24 |
| Ingurumena eta Lurralde Antolaketa | 22 | 11,70 | 3.220.863,97 | 0,44 |
| Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak | 41 | 21,81 | 672.636.998,91 | 91,85 |
| Kudeaketa zentralizatua eta Kontratazio-Zentrala | 27 | 14,36 | 10.224.916,95 | 1,40 |
| GUZTIRA | 188 | | 732.336.392,55 | 100,00 |

ONARTUTAKO KONTRATU KOPURUAREN BANAKETA





BAIMENDUTAKO GASTUAREN BANAKETA



Jarraian, departamentuz departamentu xehatuko dugu informazio hori.

Diputatu Nagusia

2014ko ekitaldian 11 kontratazio espediente onartu dira (1.592.963,65 euro guztira), hau da, ekitaldian hasitako kontratuetarako Foru Aldundiak baimendutako gastu bolumen osoaren %0,22.

| KONTRATUAK | Kop. | % | Zenbatekoa | % |
|------------|------|--------|--------------|--------|
| Zerbitzuak | 11 | 100,00 | 1.592.963,65 | 100,00 |

Departamentu honek zerbitzuen kontratua baino ez du erabili. Zenbateko handieneko kontratuak Euskara Zuzendaritza Nagusiari atxikitakoak dira alde handiz: aurreneko tokian, Gipuzkoako Foru Aldundiko langileak euskaraz trebatzeko Alet programari dagokion zerbitzu kontratua dago (520.000 euro guztira), eta, bigarren tokian, Euskara Zuzendaritza Nagusiak egin ezin dituen itzulpen zerbitzuei dagokiena (496.400 euro).

Ogasuna eta Finantzak

2014ko ekitaldian 11 kontratazio espediente onartu dira (1.355.980,50 euro guztira), ekitaldian hasitako kontratuetarako Foru Aldundiak baimendutako gastu bolumen osoaren %0,19.

| Kontratuak | Kop. | % | Zenbatekoa | % |
|------------|------|--------|--------------|--------|
| Zerbitzuak | 11 | 100,00 | 1.355.980,50 | 100,00 |



Departamentu honek zerbitzuen kontratua baino ez du erabili. Egin dituen kontratuen artean, bereziki aipatzekoa da, duen zenbatekoarengatik, telefono zenbaki bakarraren bidezko informazio eta laguntza zerbitzuen kontratazioa → 640.000 euro.

Gizarte Politika

Departamentu honek 17 kontratu egin ditu 2014ko ekitaldian, eta 34.199.266,88 euroko aurrekontua lizitatu du guztira. Ekitaldian hasitako kontratuetarako Foru Aldundiak baimendutako gastu osoaren %4,67 da gastu hori.

| KONTRATUAK | Kop. | % | Zenbatekoa | % |
|----------------------|-----------|---------------|----------------------|---------------|
| Obrak | 3 | 17,65 | 1.533.464,59 | 4,48 |
| Hornidurak | 3 | 17,65 | 316.501,53 | 0,93 |
| Zerbitzuak | 8 | 47,06 | 13.430.039,52 | 39,27 |
| Zerbitzuen kudeaketa | 3 | 17,65 | 18.919.261,24 | 55,32 |
| | 17 | 100,00 | 34.199.266,88 | 100,00 |

Ikuspegi ekonomikotik, departamentu honek zenbateko handiko kontratuak tramitatu ditu oro har, aurreko ekitaldiko zenbatekoa gainditzeraino. Haietatik zazpik 500.000 euroko atalasea gainditzen dute, eta haien artean bost 1.000.000 eurotik gora daude. Hiru hauek dira garrantzitsuenak:

- seme-alabak zaintzeko arazoak dituzten familietan esku-hartze psikosoziala eta gizarte-hezkuntzako esku-hartzea egiteko zerbitzuak → 9.977.584 euro.
- Urretxu, Legorreta, Arrasate, Igeldo, Azpeitia eta Eibar-Matsariako egoitza harrerarako zentroyen erabilera eta kudeaketaren emakida → 9.158.964 euro.
- babesik gabeko adingabeentzako Irisasi (Usurbil) eta Uralde (Lezo) egoitza harrerako 2 zentroyen erabilera eta kudeaketaren emakida → 6.997.423 euro.

Kontratu horiez gain, departamentu honek, urtero, izaera kontraktualeko hitzarmen eta itun prestazionalak izenpetzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeari lotuta, eta haien artean pertsona desgaituen eta hirugarren adinekoen egoitzak kudeatzekoak nabarmentzen dira beren zenbatekoarengatik.



Kultura, Gazteria eta Kirola

Departamentu honek 33 kontratu onartu zituen iaz, honela banatuta:

| KONTRATUAK | Kop. | % | Zenbatekoa | % |
|----------------------|-----------|---------------|---------------------|---------------|
| Obrak | 1 | 3,03 | 217.565,99 | 3,56 |
| Hornidurak | 4 | 12,12 | 190.883,76 | 3,12 |
| Zerbitzuak | 27 | 81,82 | 4.055.006,66 | 66,30 |
| Zerbitzuen kudeaketa | 1 | 3,03 | 1.652.363,15 | 27,02 |
| | 33 | 100,00 | 6.115.819,56 | 100,00 |

Aurkeztutako datuen arabera, Departamentu honek tramitatu dituen kontratu gehienak zerbitzu kontratuak dira, eta kontratu modalitate horretan baimendutako gastu bolumena zenbateko osoaren %66,30 iguru da.

Kontratu horietan guztietan, zenbatekorik handienekoa Igartubeiti Baserri Museoaren, Untzi Museoaren eta Zumalakarregi Museoaren kudeaketa integralaren kontratazioa da: 1.652.363,15 euro. Beste hamabi kontratuk 100.000 euroko atalasea gainditzen dute.

Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa

Departamentu honek 9 kontratazio espediente onartu ditu 2014an, ondorengo taulan jasotakoaren arabera:

| KONTRATUAK | Kop. | % | Zenbatekoa | % |
|------------|----------|---------------|---------------------|---------------|
| Obrak | 2 | 22,22 | 126.900,23 | 10,35 |
| Hornidurak | 1 | 11,11 | 215.960,80 | 17,61 |
| Zerbitzuak | 6 | 66,67 | 883.418,00 | 72,04 |
| | 9 | 100,00 | 1.226.279,03 | 100,00 |

Baimendutako gastuari erreparatuta, bi kontratazio nabarmentzen dira: Foru Jauregirako logistika zerbitzua (326.700 euro), eta Miramon eraikinerako logistika zerbitzua (278.300 euro). Beste bi kontratuk bakarrik gainditzen dute 100.000 euroko atalasea.



Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa

Departamentu honek 17 espediente onartu ditu 2014an urtean zehar, eta 1.763.303,10 euroko aurrekontua lizitatu du. Zerbitzuen kontratua da gehien erabili dena: 14 espediente. Orobat, kontratu kategoria honetan baimendu den zenbatekoa departamentuak baimendutako gastu osoaren %84,88 da.

| KONTRATUAK | Kop. | % | Zenbatekoa | % |
|------------|-----------|---------------|---------------------|---------------|
| Obrak | 2 | 11,76 | 235.509,60 | 13,36 |
| Hornidurak | 1 | 5,88 | 31.157,50 | 1,77 |
| Zerbitzuak | 14 | 82,35 | 1.496.636,00 | 84,88 |
| | 17 | 100,00 | 1.763.303,10 | 100,00 |

2014ko ekitaldian departamentu honetan gastu bolumen gehien izan duen kontratua Gipuzkoako Lurralde Historikoan hildako animaliak eraldatu eta deuseztatzeko zerbitzuarena da → 259.600,00 euro. Atzetik, abereen saneamendu kanpaina GLHn egiteko zerbitzua dator → 257.400,00 euro. Badira beste lau kontratu 100.000 euroko atalasea gainditzen dutenak.

Ingurumena eta Lurralde Antolaketa

Departamentu honek 22 kontratazio espediente onartu ditu 2014an, ondorengo taulan jasotakoaren arabera:

| KONTRATUAK | Kop. | % | Zenbatekoa | % |
|-------------|-----------|---------------|---------------------|---------------|
| Obrak | 8 | 36,36 | 2.422.413,83 | 75,21 |
| Hornidurak | 2 | 9,09 | 197.073,00 | 6,12 |
| Zerbitzuak | 9 | 40,91 | 385.295,71 | 11,96 |
| Ondarezkoak | 3 | 13,64 | 216.081,43 | 6,71 |
| | 22 | 100,00 | 3.220.863,97 | 100,00 |

Zerbitzu kontratuek eta obra kontratuek onartu diren 22 espedienteetatik 17 hartzen dituzte (9 eta 8, hurrenez hurren), eta baimendutako gastu osoaren %87,17 haiei dagokie. Gastu bolumen gehien tramitatu duen espedientea Foru Jauregiko hirugarren solairua (Andia aldea eta Peñaflorida) berritzeko lanen kontratazioa da → 792.615,00 euro. Atzetik, Orendaingo saneamenduko proiektu berrikusiaren kontratua dator → 634.136,00 euro.



Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak

Departamentu honek 41 kontratu onartu ditu aurreko ekitaldian, honela banatuak:

| KONTRATUAK | Kop. | % | Zenbatekoa | % |
|----------------------|-----------|---------------|-----------------------|---------------|
| Obrak | 19 | 46,34 | 9.682.608,45 | 1,44 |
| Hornidurak | 2 | 4,88 | 1.165.077,38 | 0,17 |
| Zerbitzuak | 15 | 36,59 | 46.802.522,77 | 6,96 |
| Zerbitzuen kudeaketa | 5 | 12,20 | 614.986.790,31 | 91,43 |
| | 41 | 100,00 | 672.636.998,91 | 100,00 |

Kontratuak kategorien arabera aztertzen baditugu, beren zenbatekoagatik zerbitzuak kudeatzeko kontratuak nagusitzen dira (%91,43), eta, zehazki, bidaiarien garraio zerbitzua zonaka egiteko emakidak, lurralde historikoaren zati handi bat hartzen dutenak:

- ❑ Debagoiena eskualdean bidaiarien errepide bidezko hiri arteko garraio zerbitzu publikoa egiteko emakida, barruan sartuta Debarrena, Gasteiz, Bilbo eta Donostiarekiko konexioak, eta Donostiaren eta Autonomia Erkidegoko beste hiriburuen arteko konexioak → 290.586.091 euro.
- ❑ Debarrena/Urola Kosta eskualdean bidaiarien errepide bidezko hiri arteko garraio zerbitzu publikoa egiteko emakida → 118.991.822 euro.
- ❑ Tolosan, N-1 errepidean, Buruntzaldean eta Donostiarekiko konexioetan bidaiarien errepide bidezko hiri arteko garraio zerbitzu publikoa egiteko emakida → 113.418.115 euro.
- ❑ Urolako Erdia eskualdean bidaiarien errepide bidezko hiri arteko garraio zerbitzu publiko egiteko emakida → 62.902.422 euro.
- ❑ Goierri eskualdean bidaiarien errepide bidezko hiri arteko garraio zerbitzu publikoa egiteko emakida → 29.088.340 euro.

Zerbitzu kontratuei dagokienez, guztien artean aipatzekoa da Goierrialdea eskualdean (GE zona) lehentasunezko eta oinarrizko errepide sarea eta bizikleta bideak mantentzeko zerbitzuaren kontratazioa, 13.847.590,18 euroko lizitazio aurrekontua duena.

Obra kontratuetan, bereziki nabarmentzen da Itsasondo-Ordizia bizikleta eta oinezkoentzako bide-zatia (3. ibilbidea: Donostia-Beasain) eraikitzeko proiektuaren proiektu berrikusia aurrera eramateko obren kontratua, 2.443.930 euroko lizitazio aurrekontua duena.



Kudeaketa zentralizatua

Tipologia honetan, kudeaketa eta kontratazioa Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentuak egiten ditu, otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuak araututako Zerbitzu Orokorretako Kontratazio eta Homologazio Mahaiaren bitartez.

20 kontratu tramitatu dira Zerbitzu Orokorretako Mahaiaren bitartez, 5.431.843,87 euro guztira.

| KONTRATUAK | Kop. | % | Zenbatekoa | % |
|------------|-----------|---------------|---------------------|---------------|
| Hornidurak | 15 | 75,00 | 2.107.950,27 | 38,81 |
| Zerbitzuak | 3 | 15,00 | 3.128.393,60 | 57,59 |
| Pribatuak | 2 | 10,00 | 195.500,00 | 3,60 |
| | 20 | 100,00 | 5.431.843,87 | 100,00 |

Zerbitzu Orokorretako Mahaiak gehien tramitatzen duen kontratu mota hornidurena da (20tik 15).

Lizitazio zenbatekoaren ikuspuntutik zerbitzu kontratuak ageri dira lehen tokian, departamentuak lizitatutako guztiaren %57,59 hartzen baitute. Bigarren tokian zerbitzu kontratuak datoz (%38,81), eta hirugarrenean kontratu pribatuak (%3,60).

Kontratuen zenbatekoari erreparatuta, hauek nabarmentzen dira:

- Foru Aldundiaren eraikinetan zaintza zerbitzua kontratatzeke esparru-akordiotik ondorioztatutakoa → 2.930.612 euro.
- Esku Hartzeko eta Suhiltzaile Etxeak Kudeatzeko Zerbitzurako bi autoponparen hornidura → 640.000 euro.

Foru Kontratazioen Zentrala

Foru Kontratazioen Zentralak irekitako espedienteak kudeatu eta kontratatzeke, esparru-akordioa erabiltzen da, Zentrala erregulatzen duen araudiak exijitzen duen bezala (otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretua, 6.1 artikulua). Espediente bakoitzari atxikitako enteari dagokio beti kontratazio alorreko araudiaren arabera zilegi diren kontratuak esleitu eta formalizatzea.

Memoria honen ondorioetarako, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion gastu baimendua bakarrik sartu da kontratu eratorri hauetan.

Guztira 7 kontratu tramitatu ditu Foru Kontratazioen Zentralak, 4.793.073,08 euro denak batera hartuta.



| KONTRATUAK | Kop. | % | Zenbatekoa | % |
|------------|----------|---------------|---------------------|---------------|
| Hornidurak | 4 | 57,14 | 4.609.420,00 | 96,17 |
| Zerbitzuak | 3 | 42,86 | 183.653,08 | 3,83 |
| | 7 | 100,00 | 4.793.073,08 | 100,00 |

Foru Kontratazioen Zentralean gehien tramitatu den kontratu mota hornidurena izan da, 4 guztira. Litzazio zenbatekoaren ikuspuntutik ere hornidura kontratuak ageri dira lehen tokian, lizitatutako zenbatekoaren % 96,17ko portzentajearekin.

Zenbatekoari erreparatuz gero, kontratu hauek nabarmentzen dira:

- Argindar elektrikoa hornitzeko esparru-akordiotik eratorritako kontratua → 4.206.424 euro.
- Instalazioak mantentzeko zerbitzuen kontratua → 91.534 euro.

4.1.3.- PROZEDURAREN ARABERA

Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginak eskema hau ezarri zuen administrazio kontratuak esleitzeko prozedurei dagokienez:

| ESLEITZEKO PROZEDURA |
|---|
| IREKIA |
| MURRIZTUA |
| NEGOZIATUA: <ul style="list-style-type: none"><input type="checkbox"/> publizitatearekin<input type="checkbox"/> publizitaterik gabe |

Eskema hori bera errepikatzen da bai Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legean eta bai, geroago, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzekoan, nahiz eta horietan badiren zenbait ñabardura bereizgarri. Horrela, beste figura bat agertzen da, lehia-elkarrizketarena, oraindik ezein departamentuk erabili ez duena. Lehia-elkarrizketan, kontratazio organoak elkarrizketa bat antolatzen du hautatutako izangaiekin, horiek hala eskatu ondoren, haien premiak bete ditzaketen irtenbidea edo irtenbideak garatzeko, eta irtenbide horiek oinarria izango dira hautatutako izangaiek eskaintza bat aurkez dezaten.



Ondoko taulan Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014an onartu dituen kontratuei buruzko datuak ikus daitezke, esleipen prozeduraren arabera banatuta:

| DEPARTAMENTUA | IREKIA | | | NEGOZIATUA, PUBLIZITATERIK GABE | | |
|--|---------------|--------------|-----------------------|------------------------------------|-------------|----------------------|
| | KONT. KOP. | ZENBATEKOA | | KON T. KOP. | ZENBATEKOA | |
| | | % | € | | % | € |
| Diputatu nagusia | 4 | 77,55 | 1.235.350,00 | 7 | 22,45 | 357.613,65 |
| Ogasuna eta Finantzak | 4 | 83,97 | 1.138.676,50 | 7 | 16,03 | 217.304,00 |
| Gizarte Politika | 13 | 98,77 | 33.778.121,21 | 4 | 1,23 | 421.145,67 |
| Kultura, Gazteria eta Kirola | 12 | 71,13 | 4.350.254,32 | 21 | 28,87 | 1.765.565,24 |
| Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa | 3 | 66,95 | 820.960,80 | 6 | 33,05 | 405.318,23 |
| Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa | 4 | 49,02 | 864.400,00 | 13 | 50,98 | 898.903,10 |
| Ingurumena eta Lurralde Antolaketa | 4 | 51,60 | 1.661.824,44 | 18 | 48,40 | 1.559.039,53 |
| Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak | 19 | 99,54 | 669.529.732,45 | 22 | 0,46 | 3.107.266,46 |
| Kudeaketa zentralizatua | 5 | 23,38 | 1.270.121,76 | 15 | 76,62 | 4.161.722,11 |
| Foru Kontratazioen Zentrala | 0 | 0 | 0 | 7 | 100,00 | 4.793.073,08 |
| GUZTIRA | 68 | 97,58 | 714.649.441,48 | 120 | 2,42 | 17.686.951,07 |

Hasteko, esan behar da prozedura murriztua ez dela erabili Gipuzkoako Foru Aldundiko ezein espedientetan, aurreko ekitaldietan bezalaxe.

Aurreko taulan jasotako datuek erakusten dutenez, Foru Aldundiko departamentuek bi prozedura erabili dituzte kontratuak esleitzeko. Alde batetik, prozedura irekia erabili dute, eta haren bidez 68 kontratu lizitatu dira, kopuru osoaren %36,17 eta baimendutako gastu osoaren %97,58.

Bestalde, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz 120 kontratu lizitatu dira, kopurua osoaren %63,83. Hala ere, kasu honetan bere kuantifikazio ekonomikoa askoz txikiagoa da, lizitatutako zenbateko osoaren %2,42 baino ez.

Zifra horiek erakusten dute publizitaterik gabeko prozedura negoziatuek pisu handiagoa dutela lizitazio kopuruan. Horren arrazoia neurri batean izan daiteke prozedura hau erabiltzeko ezarritako dauden behe mugak gehitu egin direla.

Datu horien arabera, kontratuak esleitzeko garaian, departamentu guztiek (Gizarte Politikakoak izan ezik) eta Kudeaketa Zentralizatua eta Kontratazioen Zentralak

² Ikus memoria honen II. eranskinean, 2014an onartutako kontratuen xehetasuna, esleipen prozeduraren arabera.



gehiagotan erabili dute publizitaterik gabeko prozedura negoziatua irekia baino. Era horretan, azken urteotako joerari eusten zaio, eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez tramitatutako kontratuak gehitu egiten dira berriro.

Jarraian, azalduko dugu zer arrazoi eman dituzten maizago publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili duten departamentuek prozedura horren aplikazioa justifikatzeko:

Diputatu Nagusiaren Kabineteak publizitaterik gabeko bere 7 prozedura negoziatuak justifikatu ditu adieraziz kontratu horien lizitazio aurrekontuak legeak ezarritako goi mugak baino txikiagoak direla. Gizarte Politikako Departamentuak (lau), Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak (hemezortzi), eta Ogasun eta Finantza Departamentuak (zazpi), arrazoibide bera erabili dute prozedura horrekin tramitatu dituzten kontratu guztietarako.

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak bere hogeita bat espedienteetatik hamalautan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili izana justifikatu du adieraziz kontratuen lizitazio aurrekontuak legeak ezarritako goi mugak baino txikiagoak direla. Gainerako zazpi espedienteetan arrazoi tekniko edo artistikoak azaldu ditu, bai eta eskusiba-eskubideen babesarekin lotutakoak ere, lanak bakar-bakarrik enpresaburu jakin baten esku uztera behartzen dutenak. (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 170.d art.).

Bere aldetik, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentuak kontratuen zenbatekoa argudiatu du publizitaterik gabeko bost prozedura negoziatu justifikatzeko. Seigarren kontratua (Foru Aldundiaren hainbat zentrotan segurtasun eta suteen aurkako sistemak mantentzeko zerbitzuei dagokiena) justifikatu da espedientea sekretua edo erreserbatua izendatu zelako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 170.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak hamabi kasutan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua justifikatu du kontratuen lizitazio aurrekontuak legeak ezarritako goi mugak baino txikiagoak direla adieraziz. Beste kontratua justifikatzeko (hildako animaliak eraldatu eta suntsitzeko zerbitzua), eskusiba-eskubideen babesarekin lotutako arrazoiak azaldu ditu, lanak bakar-bakarrik enpresaburu jakin baten esku uztera behartzen dutenak.

Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak kontratuen zenbatekoa argudiatu du hogeita bat kasutan prozedura hau erabiltzeko. Beste kontratuan (Getaria eta Zarautz artean N-634 errepidea -24,650 eta 24,800 kilometro puntuetan-eustorma egonkortzeko lanei dagokiena), tramitazioa presazkoa izateagatik justifikatu da prozedura hau.

Kudeaketa Zentralizatuak kontratuen zenbatekoa argudiatu du publizitaterik gabeko zortzi prozedura negoziatu erabiltzeko. Beste zazpitan, kontratuak esparru-akordioetatik datozela argudiatu du.

Azkenik, Kontratazioen Zentralak justifikatu du sei kasutan prozedura negoziatua erabili duela esparru-akordioetatik eratorritako kontratuak izateagatik, eta kasu batean kontratuaren zenbatekoa argudiatu du prozedura hori erabiltzeko.



Hona hemen laburpen taula:

| DEPARTAMENTUA | NEGOZIATUA, PUBLIZITATERIK GABE Emandako argudioak | | |
|--|---|----------------------|------------|
| | Kopurua | Beste arrazoi batzuk | Guztira |
| Diputatu nagusia | 7 | 0 | 7 |
| Ogasuna eta Finantzak | 7 | 0 | 7 |
| Gizarte Politika | 4 | 0 | 4 |
| Kultura, Gazteria eta Kirola | 14 | 7 | 21 |
| Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa | 5 | 1 | 6 |
| Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa | 12 | 1 | 13 |
| Ingurumena eta Lurralde Antolaketa | 18 | 0 | 18 |
| Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak | 21 | 1 | 22 |
| Kudeaketa zentralizatua | 8 | 7 | 15 |
| Foru Kontratazioen Zentrala | 1 | 6 | 7 |
| GUZTIRA | 97 | 23 | 120 |

4.1.4.- ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOAREN ARABERA

Kontratazio espedienteak arruntak, presakoak zein larrialdikoak izan daitezke.

Ondoko taulan ikus daitekeenez, espediente gehienak (%99,47) izaera arruntez tramitatzen dira, eta aurrekontu lizitatuaren %99,93 hartzen dute.

| TRAMITEA | KONTRATU KOPURUA | ZENBATEKOA | KONTRAT U KOP./% | ZENBATEKO OSOA/% |
|----------------|------------------|-----------------------|------------------|------------------|
| Arrunta | 187 | 731.832.724,82 | 99,47 | 99,93 |
| Larrialdikoa | 1 | 503.667,73 | 0,53 | 0,07 |
| GUZTIRA | 188 | 732.336.392,55 | 100,00 | 100,00 |

Larrialdi prozeduraz espediente bakarra tramitatu da, hain zuzen ere Getaria eta Zarautz artean N-634 errepidea –24,650 eta 24,800 kilometro puntuetan– eustorma egonkortzeko lanei dagokiena.

³ Ikus memoriaren III. eranskinean 2014an onartutako kontratuen xehetasuna, espedientearen tramitazioaren arabera.



Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duenak, ezarritakoaren arabera, tramitazio hau erabiliko da Administrazioak berehala jardun behar duenean hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako.

4.1.5.- ESLEITU GABE UTZITAKO LIZITAZIOAK

2014. urtean onartutako kontratuen kapitulu orokorreko atal honetan, hainbat arrazoiengatik azkenik gauzatu ez diren lizitazioak izango ditugu hizpide.

Horrela, erregistratutako datuak aztertuta, ikusgai jartzen da espediente bakarra geratu dela esleitu gabe, honako hau:

| | |
|--|--------------|
| GFAko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuari laguntza emateko zerbitzua | 733.751,09 € |
| Zergatia: <i>aurkeztutako eskaintza bakarra ez zen onartu.</i> | |

4.2.- GASTUA KUDEATZEKO KONTRATUAK, 2014AN GAUZATUAK

Memoria honen hasieran adierazi dugunez, 2014. urtean esleitu diren kontratuen barruan ekitaldi horretan egindako esleipenak sartu dira, alde batera utzita kontratua lehenago onartu den edo ez. Aitzitik, 2014an onartu bai baina ekitaldi horren amaieran esleitu gabe geratu diren kontratuak kanpoan utzi dira.

Irizpide horien arabera, 2014. urtean 189 kontratu esleitu dira. 189 kontratu horietatik, 24 kontratu 2013an onartutakoak dira eta gainerako 165ak 2014an onartu dira.

Txosten honen hasierako oharretan adierazitakoa gogoratuz, 2014. urtean egindako esleipenen datuak banakatuta ematen direnez, esleipenak lote esleituen kopuruarenak izango dira, hau da, esleipen kopurua handiagoa izango da esleitutako kontratuena baino.

Zehazki, 2014. urtean esleitutako 189 kontratuak 199 lote dira guztira. Lote kontzeptua ez da ageri bakarrik kontratuaren xedea aurrez adierazitako lotetan banatuta dagoenean, esleipendun bat baino gehiago izan dezaketen kontratu guztietan ere ageri da.

Hortaz, 2014. urtean 199 lote esleitu dira, 102.542.586,85 euro guztira. Ekitaldian esleitutako kontratuen zenbatekoei erreparatzen badiegu, hiru hauek nabarmendu behar ditugu beren zenbatekoagatik:

- Tolosaldea eskualdean bidaiarien errepide bidezko hiri arteko garraio zerbitzu publikoa egiteko emakida → 11.647.720 euro.
- Goierrialdea eskualdeko lehentasunezko eta oinarrizko errepide sareetan eta bizikleta bideetan artapen eta ustiapen lanak egiteko zerbitzuak → 11.493.499,89 euro.



- Donostialdea eta Bidasoaldea eskualdeetako lehentasunezko eta oinarrizko errepide sareetan eta bizikleta bideetan artapen eta ustiapen lanak egiteko zerbitzuak → 10.010.815,84 euro.

4.2.1.- TIPOLOGIAREN ARABERA

Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginak arautzen dituen kontratu motei begiratuta, honela banatzen dira Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014an esleitutako kontratuak:

| KONTRATU MOTA | Kop. | % | LIZITAZIO ZENBATEKOA | ESLEIPENAREN ZENBATEKOA | % |
|----------------------|------------|---------------|-----------------------|-------------------------|---------------|
| Obrak | 39 | 19,60 | 17.948.649,95 | 14.768.599,12 | 14,40 |
| Hornidurak | 37 | 18,59 | 7.596.309,29 | 7.373.279,22 | 7,19 |
| Zerbitzuak | 113 | 56,78 | 66.705.179,22 | 56.903.076,46 | 55,49 |
| Zerbitzuen kudeaketa | 4 | 2,01 | 25.059.715,91 | 23.060.380,38 | 22,49 |
| Pribatuak | 1 | 0,50 | 33.500,00 | 23.329,64 | 0,02 |
| Ondarezkoak | 5 | 2,51 | 480.981,43 | 413.922,03 | 0,40 |
| GUZTIRA | 199 | 100,00 | 117.824.334,90 | 102.542.586,85 | 100,00 |

Ikuspegi ekonomikotik, zerbitzu kontratuak dira nagusiak, 2014an lizitatutako aurrekontuaren %55,49 hartzen dutelako. Ondoren, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak datoz, zenbateko osoaren %22,49ko portzentajearekin. Hirugarren tokian obra kontratuak daude, euren portzentajea %14,40 baita.

Hiru kontratu mota horien zenbatekoak batuz gero, Aldundiak 2014an kontratatutako zenbateko osoaren %92,38 dira. Gainerako zenbatekoa honela banatzen da: hornidura kontratuak (%7,19), kontratu pribatuak (%0,02), eta ondarezkoak (%0,40).

4.2.2.- TRAMITATZEN DUEN DEPARTAMENTUAREN ARABERA

Departamentuek esleitutako lote kopuruari buruzko datuen arabera, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak eta Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak esleitu dute lote kopururik handiena, bakoitzak kopuru osoaren %20,10. Haren atzetik hauek datoz: Kudeaketa Zentralizatua (%14,07), Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua (%13,07), eta Gizarte Politikako Departamentua (%10,05). Gainerako departamentuak ez dira %10era iristen.

Gastu xedatuari dagokionez, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua nabarmentzen da besteen gaineratik, bere gastu bolumenak 2014ko gastu osoaren %57,64 hartzen baitu. Ondoren, departamentu hauek ageri dira: Gizarte Politika (%17,91), Kontratazio Zentralizatua (%9,04), Berrikuntza, Landa Garapena eta



Turismoa (%8,54), eta Kultura, Gazteria eta Kirola (%8,54). Gainerako departamentuen kasuan, batek ere ez du gainditzen %5.

| DEPARTAMENTUA | Kop. | Kop. os/% | Esleipen zenbatekoa | Kop. os/% |
|--|------------|---------------|-----------------------|---------------|
| Diputatu Nagusia | 10 | 5,03 | 1.057.242,68 | 1,03 |
| Ogasuna eta Finantzak | 9 | 4,52 | 586.141,49 | 0,57 |
| Gizarte Politika | 20 | 10,05 | 18.368.424,66 | 17,91 |
| Kultura, Gazteria eta Kirola | 40 | 20,10 | 8.202.817,14 | 8,00 |
| Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa | 9 | 4,52 | 1.087.713,17 | 1,06 |
| Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa | 17 | 8,54 | 1.723.338,60 | 8,54 |
| Ingurumena eta Lurralde Antolaketa | 26 | 13,07 | 3.137.199,59 | 3,06 |
| Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak | 40 | 20,10 | 59.105.169,76 | 57,64 |
| Kudeaketa zentralizatua eta Kontratazio-Zentrala | 28 | 14,07 | 9.274.539,76 | 9,04 |
| GUZTIRA | 199 | 100,00 | 102.542.586,85 | 100,00 |

4.2.3.- ESLEIPENETAN IZANDAKO KONTRATAZIO BEHERAPENEN AZTERKETA

2014. urtean batekoz beste %12,97ko beherapena izan da Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako kontratuen esleipenetan, eta horrek 15.281.748,05 euro aurreztea ekarri du. Beherapenen batez besteko portzentajea honela banatzen da departamentuka:

| DEPARTAMENTUA | BEHERAPEN % | ZENBATEKOA |
|--|--------------|----------------------|
| Diputatu Nagusia | 2,20 | 23.800,97 |
| Ogasuna eta Finantzak | 0,99 | 5.839,01 |
| Gizarte Politika | 1,58 | 294.213,02 |
| Kultura, Gazteria eta Kirola | 6,05 | 528.448,66 |
| Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa | 11,30 | 138.565,86 |
| Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa | 2,27 | 39.964,50 |
| Ingurumena eta Lurralde Antolaketa | 18,66 | 719.909,24 |
| Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak | 17,94 | 12.919.515,87 |
| Kudeaketa zentralizatua eta Kontratazio-Zentrala | 6,19 | 611.490,92 |
| GUZTIRA | 12,97 | 15.281.748,05 |



Aurreko taulan ikus daitekeenez, lizitazioen beherapen portzentajeak Ogasun eta Finantza Departamentuan izandako %0,99tik Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuan izandako %18,66raino doaz.

Departamentuetako kontratueta lizitazioaren beherapenak ekarritako aurrezpenari dagokionez, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegiturako Departamentua nagusitzen da, 12.919.515,87 euroko beherapena izan baitu bere lizitazioetan.

| KONTRATU MOTA | BEHERAPE N % | ZENBATEKOA |
|----------------------|-----------------|----------------------|
| Obrak | 17,72 | 3.180.049,93 |
| Hornidurak | 2,94 | 223.030,07 |
| Zerbitzuak | 14,69 | 9.802.102,76 |
| Zerbitzuen kudeaketa | 7,98 | 1.999.335,53 |
| Pribatuak | 30,36 | 10.170,36 |
| Ondarezoak | 13,94 | 67.059,40 |
| GUZTIRA | 12,97 | 15.281.748,05 |

Portzentualki, kontratu pribatuak, obra kontratuak eta zerbitzu kontratuak dira, hurrenkera horretan, beherapen portzentajeen batez besteko handiagoa dutenak: %30,36, %17,72 eta %14,69 hurrenez hurren.

Kontratu mota bakoitzean aurreztutako zenbatekoari erreparatuta, ikusten dugu zerbitzu eta obra kontratuak direla aurrezpen handienekoak. Izan ere, kontratu horietan izandako 12.982.152,69 euroko beherapena Aldundiak 2014ko ekitaldian egindako kontratu guztien beherapenen %84,95 inguru da.

Bestetik, zenbatekoan beherapenik handiena izan duen kontratua Donostialdea eta Bidasoaldea eskualdeetako lehenetsuneko eta oinarritzko errepide sareetan eta bizikleta bideetan artapen eta ustiapen lanak egiteko kontratua da. Kontratu hori 10.010.815,84 eurotan esleitu zitzaion UTE Donostialdea SA enpresari, haren lizitazio prezioa 13.233.067,86 euro zenean (hau da, 3.222.252,02 euroko beherapena izan zuen, %24,35).

4.1.5.- ESLEITZEKO IRIZPIDEEN AZTERKETA

Atal honetan aztertuko dugu zer irizpide sartzen dituzten departamentuek beren baldintza agirietan kontratuak esleitzeko.

Azterketa hori egiteko, prozedura irekiaren bitartez tramitatutako kontratueta erabilitako esleipen irizpideak soilik hartu dira kontuan.

2014an onartutako baldintza administratibo berezien agiriak aztertu ondoren, zerrenda batean jaso ditugu haietan ezarrita dauden esleipen irizpideak, eta antzekoak edo direnak taldekatzen saiatu gara:



- ◆ proposamen ekonomikoa
- ◆ produktuaren ezaugarri teknikoak/funtzionalak/estetikoak
- ◆ berariazko esperientzia edo antzekoa
- ◆ berme epea
- ◆ saldu osteko zerbitzua, enpresarena
- ◆ proposamena/proiektua/memoria teknikoa/metodologia
- ◆ giza baliabideak eta bitarteko materialak
- ◆ hobekuntzak
- ◆ afekzioen murrizketa
- ◆ epea
- ◆ espero den zerbitzuaren kalitatea, emateko epea, bermea
- ◆ proiektuaren ekonomia eta finantza bideragarritasuna
- ◆ genero berdintasuna, ingurumenaren babesa, euskararen erabilera
- ◆ bestelako irizpideak

Datuak departamentuka aztertuta, eta haietako bakoitzak proposamen ekonomikoari eman dion pisu portzentuala aintzat hartuta, zerrenda hau lortzen dugu:

- Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa %64,62
- Kudeaketa zentralizatua eta Kontratazioen Zentrala ... %59,30
- Ingurumena eta Lurralde Antolaketa %51,71
- Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak %51,38
- Gizarte Politika %50,05
- Ogasuna eta Finantzak %49,79
- Diputatu Nagusia %41,58
- Kultura, Gazteria eta Kirola %24,59
- Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa %10,00

Departamentu guztietan, azkeneko bietan izan ezik, zenbatekoaren irizpideari ematen zaio, hasieran behintzat, pisu haztatu handiagoa kontratu esleitzeko garaian. Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuan proposamen edo memoria teknikoaren irizpidea nagusitzen da (%56,99), eta Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuan giza baliabideak eta bitarteko materialak gailentzen dira (%55,44).

Kontratu motari begiratuta, kontratu kategorია gehienetan proposamen ekonomikoaren irizpideak du puntuaziorik handiena. Hona portzentajeak:



- Obrak %56,60
- Hornidurak %58,45
- Zerbitzuak %52,68
- Zerbitzuen kudeaketa %50,86
- Pribatuak %76,71

Salbuespena ondare kontratuak ditugu. Izan ere, haietan "Bestelakoak" izan da irizpide nagusia (%55) eta gero proposamen ekonomikoa (gainerako %45a).




Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

DIPUTATU NAGUSIA

| Esleipen irizpidea | % |
|---|---------------|
| 1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA | 41,58 |
| 6 ESPERIENTZIA BEREZIA EDO ANTZEKOA | 0,61 |
| 11 PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKOA/METODOLOG | 37,11 |
| 12 GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK | 16,48 |
| 22 ZERBITZUAREN KALITATEA, EMATEKO EPEA, BERME | 4,02 |
| 26 GENERO BERDINTASUNA, INGURUMENAREN BABESA | 0,20 |
| GUZTIRA | 100,00 |






Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

OGASUNA ETA FINANTZAK

| Esleipen irizpidea | % |
|---|---------------|
| 1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA | 49,79 |
| 11 PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKOA/METODOLOG | 41,10 |
| 12 GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK | 3,72 |
| 15 HOBKUNTZAK | 4,36 |
| 17 BESTE BATZUK | 1,04 |
| GUZTIRA | 100,00 |






Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

GIZARTE POLITIKA

| Esleipen irizpidea | % |
|--|---------------|
| 1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA | 50,05 |
| 3 PRODUKTUAREN EZAUGARRI TEKNIKO, FUNTZIONAL... | 0,12 |
| 7 BERME EPEA | 0,11 |
| 8 SALDU OSTEKO ZERBITZUA, ENPRESARENA | 0,02 |
| 11 PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKO/METODOLOG | 41,51 |
| 12 GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK | 0,02 |
| 15 HOBKUNTZAK | 0,26 |
| 17 BESTE BATZUK | 2,71 |
| 18 EPEA | 0,06 |
| 24 EKONOMIA ETA FINANTZA BIDERAGARRITASUNA | 0,41 |
| 26 GENERO BERDINTASUNA, INGURUMENAREN BABESA | 4,71 |
| GUZTIRA | 100,00 |






Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

KULTURA, GAZTERIA ETA KIROLA

| Esleipen irizpidea | % |
|---|---------------|
| 1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA | 24,59 |
| 11 PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKOA/METODOLOG | 56,88 |
| 12 GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK | 4,80 |
| 15 HOBEKUNTZAK | 11,16 |
| 17 BESTE BATZUK | 0,53 |
| 26 GENERO BERDINTASUNA, INGURUMENAREN BABESA | 2,04 |
| GUZTIRA | 100,00 |






Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

FORU ADMIN. ETA FUNTZIO PUBLIKOA

| Esleipen irizpidea | % |
|--|---------------|
| 1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA | 64,62 |
| 3 PRODUKTUAREN EZAUGARRI TEKNIKO, FUNTZIONAL... | 5,26 |
| 11 PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKO/METODOLOG | 6,78 |
| 12 GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK | 20,71 |
| 22 ZERBITZUAREN KALITATEA, EMATEKO EPEA, BERME | 2,63 |
| GUZTIRA | 100,00 |






Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

BERRIKUNTZA, LANDA GARAPENA ETA TURISMO

| Esleipen irizpidea | % |
|---|---------------|
| 1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA | 10,00 |
| 6 ESPERIENTZIA BEREZIA EDO ANTZEKOA | 4,57 |
| 11 PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKOA/METODOLOG | 30,00 |
| 12 GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK | 55,44 |
| GUZTIRA | 100,00 |



- 1. PROPOSAMEN EKONOMIKOA
- 11. PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKOA/METODOLOGIA
- 12. GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO M
- 6. ESPERIENTZIA BEREZIA EDO ANTZEKO




Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

INGURUMENA ETA LURRALDE ANTOLAKETA

| Esleipen irizpidea | % |
|--|---------------|
| 1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA | 51,71 |
| 3 PRODUKTUAREN EZAUGARRI TEKNIKO, FUNTZIONAL... | 4,88 |
| 7 BERME EPEA | 0,20 |
| 11 PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKO/METODOLOG | 28,62 |
| 12 GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK | 11,45 |
| 17 BESTE BATZUK | 2,18 |
| 18 EPEA | 0,95 |
| GUZTIRA | 100,00 |






Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

MUGIKORTASUNA ETA BIDE AZPIEGITURAK

| Esleipen irizpidea | % |
|--|---------------|
| 1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA | 51,38 |
| 11 PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKO/METODOLOG | 25,64 |
| 12 GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK | 11,02 |
| 15 HOBEKUNTZAK | 1,84 |
| 16 AFEKZIOEN MURRIZKETA | 0,09 |
| 17 BESTE BATZUK | 3,62 |
| 26 GENERO BERDINTASUNA, INGURUMENAREN BABESA | 6,40 |
| GUZTIRA | 100,00 |






Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

ZERBITZU OROKORRAK

| Esleipen irizpidea | % |
|--|---------------|
| 1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA | 59,30 |
| 3 PRODUKTUAREN EZAUGARRI TEKNIKO, FUNTZIONAL... | 9,15 |
| 7 BERME EPEA | 0,30 |
| 8 SALDU OSTEKO ZERBITZUA, ENPRESARENA | 1,44 |
| 11 PROPOSAMENA/PROIEKTUA/MEMORIA TEKNIKO/METODOLOG | 1,51 |
| 12 GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MATERIALAK | 27,21 |
| 15 HOBEKUNTZAK | 0,96 |
| 17 BESTE BATZUK | 0,12 |
| GUZTIRA | 100,00 |






Esleipen irizpideen ponderazioa

Kontratu motaren arabera

Obrak

| Esleipen irizpidea | % |
|--|---------------|
